

AURKEZPENA

Gaur egun, lehen baino askoz ere errazagoa eta normalizatuagoa dago munduan zehar bidaiatzea, ondorioz, mundu osoko lurralde desberdinetako turistak eta etorkinak ikus ditzakegu. Bidaia hauetako arazo nabarmenena turistak eta bertakoen arteko komunikazioa dela hauteman dugu. Hori dela eta, edozein hizkuntza ofizial momentuan itzultzen duen tresna bat sortzea pentsatu dugu.

Gu Iker, Amets, Markel eta Telmo gara, Gas Gas taldeko partaideak. 16 urte ditugu eta Urretxu-Zumarraga ikastolako 1. Batxilergoko ikasleak gara. Ekonomiako ikasgaietan, STARTInnova programaren bidez gure enpresa sortu behar dugun proiektua ari gara egiten.

Lehen paragrafoan aipatutako arazoa askotan hauteman dugu, adibidez: Markelen lehenengo futboleko partida bat ikustera joan zen kanpora, eta zailtasunak eduki zituen bere eserlekua aurkitzeko, bertakoekin ez zen ulertzen eta 25 minutu galdu zituen; Ikerren aitak, bere lanarengatik asko bidaiatzen du eta menperatzen ez duen hizkuntza bat hitz egiten den herrialde batera joaten denean, arazoak edukitzen ditu komunikatzeko, beraz batzuetan esan diotenarekin zerikusirik ez duen beste gauza bat egiten du. Gure atzeritar lagun bat, euskera ikasten dabil eta euskaltegiara joaten da baina askotan euskaraz bakarrik hitz egiten diote eta ez du ulertzen, itzultzaile bat erabiltzen du mugikorrean eta dena idatzi behar duenez ez du denbora izaten eta esaten diotena ahaztu egiten du. Gure produktuak, adibide hauek eta beste hainbat arazo ahal ditu konpondu.

